

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure produktuak hainbat adin tarte eta pertsonentzat izango dira, izan ere, mundu guztiak erabiltzen ditu aterkinak euria egiten duenean. Gure produktuak klimatologia euritsua duten inguruetan bizi den jendearentzako izango dira batez ere. Adin tarte guztiei dago zuzendua; izan ere, aterkina eramatean eskuak libre izatea denontzat delako eroso eta euririk ez dagoenean aterkina eskuetatik kanpo eramatea denontzat delako eroso.

Adin tarte askotako jendeari doa zuzenduta, baina, adin nagusiko pertsonetan pentsatu dugu ere. Beste edozein motatako aterkina eramatean eskuak ez dituzte libre, eta euria dela eta laban egin dezakete. Orduan, gure produktua erabiltzean, eskuak libre izango dituzte eta istripu bat izatekotan, kolpea murrizten lagunduko diete eskuek. Gainera, pertsona nagusiek makila eraman ohi dute eta aterkina esku batean eta makila bestean, ez dute eskurik libre beste edozer eramateko.



Beste alde batetik, produktu honek beste adin tarte guztiak ere lagunduko ditu. Egun euritsuetan erosoago eramango dute aterkina eta eskuetan beste zerbait eramateko beharra badute, eskuak libre izango dituzte.